



Usurbilgo Udala

## **TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO URTARRILAREN 30EAN GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

### **BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

**Zinegotziak:** Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Irene Gartzia Palaciossek eta Josune Estella Arranzek.

### **1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA: 2018/01/12KO BILKURA.**

Batzarkideek, 2018ko urtarrilaren 12ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### **2.- 2017KO KIROL EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZEN KITAPENA.**

#### **Ikusirik**

2017ko otsailaren 13an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2017ko kiroleko norgehiagoka erregimenean egitasmoak burutzeko dirulaguntza oinarriak argitaratu ziren eskaerak aurkezteko 20 eguneko epea emanez. Epe horretan, 11 ohiko dirulaguntza eskaera eta kirol elkarte ez direnen jardueretako beste 3 dirulaguntza eskaera aurkeztu ziren.

Ondoren, 2017ko apirilaren 24ko bilkuran Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek, kirol teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko.

Epea amaitu ondoren eta alegaziorik izan ez zenez, aurreneko zatia eskatzaileei %50a eman zitzaion. Bi urte naturalak hartzen dituzten kirol elkarteek, 2017 irailaren 22ra arteko epea zuten zuriaketak egiteko eta gainontzekoak berriz, 2018ko urtarrilaren 19ra artekoa.

Epe barruan jasotako dokumentazioa kontuan harturik, eta oinarriek agintzen dutenen arabera eskatutako modu egokian aurkeztutako gastu-zuritutakoaren arabera:

#### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** 2017an norgehiagoka erregimenean kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntzen kitapena onartzea eta bigarren zatiaren ordainketa bideratzea:

\* Kirol elkarteak direnen ohiko jardueretako:

<b>Tximeleta</b>	179,37 €
<b>Andatza M</b>	1.752,95 €
<b>Baxurde txiki</b>	488,93 €
<b>Bazpi</b>	152,90 €
<b>Beterri Sub</b>	56,99 €
<b>Usurbil JC</b>	2.697,41 €
<b>Pagazpe</b>	316,19 €
<b>Zubieta PE</b>	597,12 €
<b>DENERA:</b>	<b>6.241,86</b>

\* Kirol elkarteek ez diren kirol jardueretako:

<b>Santuenea Auzo Elkarte</b>	<b>21,60 €</b>
<b>Einean Guraso Elkarte</b>	<b>36,00 €</b>
<b>San Praixku Guraso Elkarte</b>	<b>176,00 €</b>
<b>DENERA</b>	<b>233,60 €</b>

**Bigarrena:** Gastuak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4300.481.341.00.01 2017 (A 156-2017) eta 1.4300.481.341.00.08 2017 (A 157-2017) hurrenez hurren.

**Hirugarrena:** Interesatuei akordioaren berri ematea.


**Laugarrena:** Honen berri kontu-hartzaileari ematea.

### 3.- 2017AN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZEN KITAPENA.

#### 1.- Espedienteei buruzko datuak

##### Espedienteak:

<b>ACABE</b>	(GZ.29/2017-0008)	<b>ATZEGI</b>	(GZ.29/2017-0028)
<b>ADEMG</b>	(GZ.29/2017-0013)	<b>BEGISARE</b>	(GZ.29/2017-0025)



Usurbilgo Udala

<b>AECC</b>	(GZ.29/2017-0027)	<b>BIKARTE</b>	(GZ.29/2017-0018)
<b>AGIFES</b>	(GZ.29/2017-0012)	<b>GIP. ITXAROPEN TELEFONOA</b>	(GZ.29/2017-0010)
<b>AGIPASE</b>	(GZ.29/2017-0017)	<b>IZAN FUNDAZIOA</b>	(GZ.29/2017-0011)
<b>ALCER</b>	(GZ.29/2016-0016)	<b>ORTZADAR</b>	(GZ.29/2017-0009)
<b>ATECE</b>	(GZ.29/2017-0008)	<b>PAUSOKA ELKARTEA</b>	(GZ.29/2017-0015)
<b>GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKOA</b>	(GZ.29/2017/0026)	<b>AGI</b>	(GZ.29/2017-0029)
<b>ADAHIGI</b>	(GZ.29/2017-0014)		

## 2.- Ikusirik

2017ko otsailaren 13an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2017. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko ekainaren 20an egindako bilkuran, 2017. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzak behin betikoz onartu zituen.

Urtea amaiturik, elkarte guztiek aurkeztu dute justifikazioa orokorrean.

Laburtuz,

TALDEAREN IZENA	ONARTUTAKO LAGUNTZA % 100	1. ORDAINKETA %50	BIDERATU BEHARREKOA
1. ACABE (Euskadiko anorexia eta bulimiaren aurkako elkarteak)	798,23 €	399,11 €	399,12 €
2. ADEMGI (Esklerosia anizkuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarteak)	387,02 €	193,51 €	193,51 €
3. AECC (Minbiziaren aurkako elkarteak)	591,32 €	295,66 €	295,66 €
4. AGIFES (Buru eritasuna duten pertsonen familien elkarteak)	628,91 €	314,45 €	314,46 €
5. AGIPASE (Guraso bananduen elkarteak)	967,55 €	483,77 €	483,78 €
6. ALCER (Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarteak)	894,99 €	447,49 €	447,50 €
7. ATECE (Traumatismo Kraneo-enzefalikoa eta burmuineko kaltea duten pertsonen Gipuzkoako elkarteak)	580,53 €	290,26 €	290,27 €
8. ATZEGI (Adimen urritasuna duten eta bere familien bizi kalitatea hobetzeko elkarteak)	1.378,76 €	689,38 €	689,38 €
9. BEGISARE (Erretinosi pigmentarioa duten pertsonen elkarteak)	604,72 €	302,36 €	302,36 €
10. BIKARTE (Haur errusiar eta bielorrusiarren harrerarako elkarteak)	459,59 €	229,79 €	229,80 €
11. GIT (Gipuzkoako itxaropen telefonoak)	701,48 €	350,74 €	350,74 €
12. IZAN FUNDAZIOA (Gizabanakoa droga mendetasunaren aurrean babesteko elkarteak)	774,04 €	387,02 €	387,02 €
13. GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA	572,08 €	286,04 €	286,04 €
14. ORTZADAR ELKARTEA (Adimen urritasun)	653,10 €	326,55 €	326,55 €



Usurbilgo Udala

ertaina eta arina duten pertsoneri zuzendua)			
<b>15. PAUSOKA ELKARTEA (Behar bereziak dituzten gurasoen elkarte)</b>	<b>798,23 €</b>	<b>399,11 €</b>	<b>399,12 €</b>
<b>16. AGI (Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkarte)..</b>	<b>653,10 €</b>	<b>326,55 €</b>	<b>326,55 €</b>
<b>17. ADAHIGI (TDAH duten familiei arreta goiztiarra)..</b>	<b>556,34 €</b>	<b>278,27 €</b>	<b>278,07 €</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.999,99 €</b>	<b>6.000,06 €</b>	<b>5.999,93 €</b>

### 3.- Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- 2017an Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2017-02-13)

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Honako eskatzaileei gizarte zerbitzuen arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

TALDEAREN IZENA	BIDERATU BEHARREKOA
1. ACABE (Euskadiko anorexia eta bulimiaren aurkako elkarte)	399,12 €
2. ADENGI (Esklerosia anizkuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarte)	193,51 €
3. AECC (Minbiziaren aurkako elkarte)	295,66 €
4. AGIFES (Buru eritasuna duten pertsonen familien elkarte)	314,46 €
5. AGIPASE (Guraso bananduen elkarte)	483,78 €
6. ALCER (Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarte)	447,50 €
7. ATECE (Traumatismo Kraneo-enzefaliko eta burmuineko kaltea duten pertsonen Gipuzkoako elkarte)	290,27 €
8. ATZEGI (Adimen urritasuna duten eta bere familien bizi kalitatea hobetzeko elkarte)	689,38 €
9. BEGISARE (Erretinosi pigmentarioa duten pertsonen elkarte)	302,36 €
10. BIKARTE (Haur errusiar eta bielorrusiarren harrerarako elkarte)	229,80 €
11. GIT (Gipuzkoako itxaropen telefonoa)	350,74 €
12. IZAN FUNDAZIOA (Gizabanakoa droga mendetasunaren aurrean babesteko elkarte)	387,02 €
13. GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA	286,04 €
14. ORTZADAR ELKARTEA (Adimen urritasun ertaina eta arina duten pertsoneri zuzendua)	326,55 €
15. PAUSOKA ELKARTEA (Behar bereziak dituzten gurasoen elkarte)	399,12 €
16. AGI (Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkarte)..	326,55 €
17. ADAHIGI (TDAH duten familiei arreta goiztiarra)..	278,07 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.999,93 €</b>

**Bigarrena :** Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: Diru-laguntza irekiak: Elkarteen asmoak: 1.8000.481.231.03.02.2015 (**A 99 /2017**)

**Hirugarrena:** Interesatuei akordioaren berri emango zaie.



Usurbilgo Udala

**Laugarrena:** Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio.

#### **4.- 2017KO KULTUR EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZEN KITAPENA.**

##### **1. Espedienteei buruzko datuak**

Espedienteak: Lauburu Konpartsa (KE. 01/2017-0069)  
Ziortza Gazte Elkartea (KE. 01/2017-0071)  
Iriuri Abesbatza (KE. 01/2017-0075)  
Noaua! Kultur Elkartea (KE. 01/2017-0083)  
Zubietako Eskolako Guraso Elkartea (KE. 01/2017-0088)  
Organoaren Lagunak (KE. 01/2017-0089)  
Einean (KE. 01/2017-0090)  
Antxomolantxa (KE. 01/2017-0091)  
Herritzartu Elkartea (KE. 01/2017-0092)  
Bihurri Txiki Ludoteka (KE. 01/2017-0095)  
San Praixku Guraso Elkartea (KE. 01/2017-0096)  
Usurbilgo Euskal Kantu Taldea (KE. 01/2017-0098)  
Orbeldi Dantza Taldea (KE. 01/2017-0099)  
Hitz Aho edarregi ikastolako gurako Elkartea (KE. 01/2017-0100)  
EHAZE (KE. 01/2017-0101)  
Santuenea Kultur Elkartea (KE. 01/2017-0103)  
Nafartarrak Kultur Taldea (KE. 01/2017-0104)  
Sagastiak loretan (KE. 01/2017-0105)

##### **2. Ikusirik**


2017ko otsailaren 13an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko ekainaren 20an egindako bilkuran, 2017eko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, elkarte hauek hainbat ekintza antolatzeke emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu dute:

##### **Lauburu konpartsa (KE. 01/2017-0069)**

<b>Ekintzak</b>	<b>Izendatua</b>	<b>1.zatia %75a (bideratua dagoena)</b>	<b>Justifikatutakoa</b>	<b>2. zatia Bideratu beharrekoa</b>
1. Mantenua	837,00 €	627,75 €	Gastua: 871,09 € Zuriketaren soberakina: 34,09 €	209,25 €
2. Truke ekintza	372,00 €	279,00 €	Gastua: 396,34 € Zuriketaren soberakina: 24,34 €	93,00 €
3. Truke ekintza	372,00 €	279,00 €	Gastua: 421,79 € Zuriketaren soberakina: 49,79 €	93,00 €



Usurbilgo Udala

4..Añorgara truke ekintza	232,50 €	174,38 €	Gastua: 250,09 € Zuriketaren soberakina: 17,59 €	58,13 €
<b>Guztira</b>				<b>453,38 €</b>

#### Ziortza Gazte Elkarte (KE. 01/2017-0071)


Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
5. Urteko saioak materialak	875,13 €	656,35 €	Gastua: 1.344,93 € Zuriketaren soberakina: 469,80 €	218,78 €
6. Elkarbizitza	200,00 €	150,00 €	Gastua: 1.385,70 € Zuriketaren soberakina: 1.185,70 €	50,00 €
7. Kanpaldia 2017	7.500,00 €	5.625,00 €	Gastua: 22.200,26 € Sarrerak: 14.840,70 € Guztira gastua: 7.359,56 € 5. ekintzako soberakina: 140,44 € Guztira gastua: 7.500,00 €	1.875,00 €
8. Kabalgata 2018	1.441,50 €	1.081,13 €	Gastua: 1.245,60 € 5. ekintzako soberakina 195,90 € Guztira gastua: 1.441,50 €	360,38 €
<b>Guztira</b>				<b>2.504,16 €</b>

#### Irriu Abesbatza (KE. 01/2017-0075)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
9. Urteko ekintzak	558,00 €	418,50 €	Gastua: 507,05€ 2. zatia 507,05€-418,50€	88,55 €
<b>Guztira</b>				<b>88,55 €</b>

#### Noaua! Kultur Elkarte (KE. 01/2017-0083)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
15. Kulturaldia 2017	5.649,81 €	4.237,36 €	Gastua: 6.653,56 € Sarrerak: 2.803,53 € Guztira gastua: 3.850,03 € 11.,12.,13.,14. eta 16. ekintzetako soberakinak: 1.438,90 € Guztira gastua: 5.288,93 € 2. zatia 5.288,93-4.237,36= 1.051,57 €	1.051,57 €



Usurbilgo Udala

16. Pelikula, antzerkia edo hitzaldi bat	612,74 €	459,55 €	Gastua: 631,19 € Zuriketaren soberakina 18,45 €	153,18 €
<b>Guztira</b>				<b>1.204,75 €</b>

#### Zubietako Eskolako Guraso Elkartea (KE.01/2017-0088)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
20. Aste kulturala	1.171,80 €	878,85 €	Gastua: 1.650,00 € Zuriketaren soberakina: 478,20 €	292,95 €
21. Euskal Dantzak	600,00 €	450,00 €	Gastua: 1.400,00€ Zuriketaren soberakina: 800,00 €	150,00 €
22. Hitzaldiak	334,80 €	251,10 €	Gastua: 157,50 € 20. ekintzako soberakina: 177,30 € Guztira gastua: 334,80 €	83,70 €
23. Udako txokoak	1.800,00 €	1.350,00 €	Gastua: 2.400,00 € Zuriketaren soberakina: 600,00 €	450,00 €
<b>Guztira</b>				<b>976,65 €</b>

#### Organoaren Lagunak (KE.01/2017-0089)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
24. Donostia Musika hamabostaldia inguruko Organo kontzertua	1.850,70 €	1.388,03 €	Gastua: 1.774,80 € 26. ekintzako soberakina 75,90€ Guztira gastua: 1.850,70 €	462,68 €
25. Donostia Musika Hamabostaldia barruan Organo jole internazionala	251,10 €	188,33 €	Gastua: 284,30 € Zuriketaren soberakina: 33,20 €	62,78 €
26. Abenduko euskal organo joleen bilkura	167,40 €	125,55 €	Gastua: 247,51 € Zuriketaren soberakina: 80,11 €	41,85 €
<b>Guztira</b>				<b>567,30 €</b>

#### Einean (KE.01/ 2017-0090)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
27. Pintura	720,00 €	540,00 €	Gastua: 721,56 € Zuriketaren soberakina: 1,56 €	180,00 €
28. Laboreak	72,00 €	54,00 €	Gastua: 75,02 €	18,00 €



Usurbilgo Udala

			Zuriketaren soberakina: 3,02 €	
29. Eskulanak	720,00 €	540,00 €	Gastua: 721,56 € Zuriketaren soberakina: 1,56 €	180,00 €
<b>Guztira</b>				<b>378,00 €</b>

#### Antxomolantxa (KE.01/2017-0091)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
30. Irrien Lagunak zatoz jolastera	1.395,00 €	1.046,25 €	Gastua: 1.381,05 € 31. ekintzako soberakina: 13,95 € Guztira gastua: 1.395,00 €	348,75 €
31. Ludoteka	465,00 €	348,75 €	Gastua: 521,76 € Zuriketaren soberakina: 56,76 €	116,25 €
32. Olentzeroren etorrera	465,00 €	348,75 €	Gastua: 478,99 € Zuriketaren soberakina: 13,99 €	116,25 €
35. Buala haurrentzako antzerkia	1.116,00 €	837,00 €	Gastua: 1.105,00 € 31. ekintzako soberakina: 11,00 € Guztira gastua: 1.116,00 €	279,00 €
37. Irrien Lagunak sukalde txokoa tailerra	558,00 €	418,50 €	Gastua: 552,42 € 31. ekintzako soberakina: 5,58 € Guztira gastua: 558,00 €	139,50 €
38. Ipuin saioa musikarekin badut	511,50 €	383,63 €	Gastua: 440,00 € 31. eta 32. ekintzako soberakina: 40,22 € Guztira gastua: 480,22 € 2. zatia 480,22€-383,63 €	96,59 €
39. Umeentzako tailerrak txaloka	325,50 €	244,13 €	Gastua: 325,00 € 2. zatia 325,00 €-244,13 €	80,87 €
40. Lehen sorospenak	604,50 €	453,38 €	Gastua: 580,13 € 2. zatia 580,13 €-453,38 €	126,75 €
<b>Guztira</b>				<b>1.303,98 €</b>

#### Herritzartu (KE.01/2017-0092)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
41. Hitzaldiak	697,50 €	523,13 €	Gastua: 660,45 € 42.ekintzako soberakina: 37,05 € Guztira gastua: 697,50€	174,38 €
42. Martxoak 19 Tonbola eta abestia	465,00 €	348,75 €	Gastua: 1.014,10 € Zuriketaren soberakina: 549,10 €	116,25 €
43. Erabaki Fest jaialdia	930,00 €	697,50 €	Gastua: 601,58 € 42. ekintzako soberakina: 328,42 €	232,50 €





Usurbilgo Udala

			Guztira gastua: 930,00 €	
			<b>Guztira</b>	<b>523,13 €</b>

**Bihurri Txiki Ludoteka (KE. 01/2017-0095)**

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
44. Clown saioa: Gorputz higieena	93,00 €	69,75 €	Gastua: 100,00 € Zuriketaren soberakina: 7,00 €	23,25 €
45. Clown saioa: Portaera egokia hondartzan	93,00 €	69,75 €	Gastua: 100,00 € Zuriketaren soberakina: 7,00 €	23,25 €
46. Kantu emanaldia: Olatz Korta	218,55 €	163,91 €	Gastua: 250,00 Zuriketaren soberakina: 31,45 €	54,64 €
47. Ludoteka materiala	558,00 €	418,50 €	Gastua: 702,68 € Zuriketaren soberakina: 144,68 €	139,50 €
48. Lehen sorospenak haurrentzat hitzaldia	176,70 €	132,53 €	Gastua: 204,47€ Zuriketaren soberakina: 27,77 €	44,18 €
			<b>Guztira</b>	<b>284,81 €</b>

**San Praixku Guraso Elkarte (KE. 01/2017-0096)**

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu edo itzuli beharrekoa
49. Santo Tomas Eguna	279,00 €	209,25 €	Gastua: 290,00 € Zuriketaren soberakina: 11,00 €	69,75 €
51. Euskararen Eguna	1.581,00 €	1.185,75 €	Gastua: 2.000 € Zuriketaren soberakina: 419,00 €	395,25 €
52. Udako txokoak	1.320,00 €	990,00 €	Gastua: 2.667,23€ Sarrerak: 525,00 € Guztira gastua: 2.142,23 € Zuriketaren soberakina: 822,23 €	330,00 €
53. Gabonetako txokoak	270,00 €	202,50 €	EKINTZA EZ DA EGIN	-202,50 €
55. Ipuin kontaketa	279,00 €	209,25 €	Gastua: 295,00 € Zuriketaren soberakina: 16,00 €	69,75 €
56. Aginagako Eskola Eguna	3.069,00 €	2.301,75 €	Gastua: 3.145,67 € Zuriketaren soberakina: 76,67 €	767,25 €
57. Pintura eta eskulan ikastaroa	330,00 €	247,50 €	Gastua: 3.054,00 € Sarrerak: 2.720,00 € Guztira gastua: 334,00 € Zuriketaren soberakina: 4,00 €	82,50 €
58. Euskal Dantzak	252,00 €	189,00 €	Gastua: 800,00 €	63,00 €



Usurbilgo Udala

			Sarrerak: 715,00 € Guztira gastua: 85,00 € 49. eta 51. ekintzako soberakina 167,00 € Guztira gastua: 252,00 €	
<b>Guztira</b>				<b>1.575,00 €</b>

#### Usurbil Euskal Kantu Taldea (KE. 01/2017-0098)


Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
60. Kantu entseguak	1.395,00 €	1.046,25 €	Gastua: 2.177,50 € Sarrera: 300,00 € Guztira gastua: 1.877,50 € Zuriketaren soberakina: 482,50 €	348,75 €
61. Kantu jira	900,00 €	675,00 €	Gastua: 950,00€ Zuriketaren soberakina: 50,00 €	225,00 €
<b>Guztira</b>				<b>573,75 €</b>

#### Orbeldi Dantza Taldea (KE. 01/2017-0099)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
63. Inauterietan dantza emanaldia	279,00 €	209,25€	Gastua: 403,95 € Zuriketaren soberakina: 124,95 €	69,75 €
64. Udako jaietako dantza emanaldiak	1.395,00 €	1.046,25 €	Gastua: 1.427,13 € Zuriketaren soberakina: 32,13 €	348,75 €
65. Usurbildik kanpoko emanaldiak	744,00 €	558,00 €	Gastua: 849,00 € Zuriketaren soberakina: 105,00 €	186,00 €
<b>Guztira</b>				<b>604,50 €</b>

#### Hitz Aho Udarregi ikastolako gurako Elkarte (KE. 01/2017-0100)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu edo itzuli beharrekoa
67. Hezkuntza emozionala	1.050,00 €	787,50 €	Gastua: 2.201,90 € Sarrera: 900 € Guztira gastua: 1.301,90 € Zuriketaren soberakina: 251,90 €	262,50 €
68. Jostailu erabilien azoka	93,00 €	69,75 €	Gastua: 2,10 € 67. ekintzako soberakina 90,90 € Guztira gastua 93,00 €	23,25 €



Usurbilgo Udala


69. Udarregi ikastolako kultur astea	990,45 €	742,84 €	Gastua: 951,05 € 67. ekintzetako soberakina: 39,40 € Guztira gastua: 990,45 €	247,60 €
70. Buztin tailerra	90,00 €	67,50 €	Gastua: 363,00 € Sarrera: 300 € Guztira gastua: 63,00 € 67. ekintzako soberakina: 27,00 € Guztira gastua: 90,00 €	22,50 €
71. Buruhandi tailerra	150,00 €	112,50 €	EKINTZA EZ DAEGIN	-112,50 €
72. Hitzaldi-tailerra: Elikadura osasuntsua familian	150,00 €	112,50 €	EKINTZA EZ DAEGIN	-112,50 €
73. Hitzaldi tailerra: Errespetuzko eta beldur gabeko tailerra	241,80 €	181,35 €	Gastua: 260,00 € Zuriketaren soberakina: 18,20 €	60,45 €
<b>Guztira</b>				<b>391,30 €</b>

#### EHAZE - Antzerki Ekintza (KE.01/2017-0101)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu edo itzuli beharrekoa
75. Kale ekintza musikatua	1.860,00 €	1.395,00 €	Gastua: 2.206,60 € Zuriketaren soberakina: 346,60 €	465,00 €
76. Hitzaldia: Trasngresioa: tabua ala desira?	930,00 €	697,50 €	Gastua: 550,00 € 75. eta 80. ekintzako soberakina 380,00 € Guztira gastua: 930,00 €	232,50 €
77. Miss Karaoke	2.619,81 €	1.964,86 €	Gastua: 1.527,00 € Sarrera: 200,00 € Guztira gastua: 1.327,00 € 80. ekintzako soberakina: 333,60 € Guztira gastua: 1.660,60 € 2. zatia 1.660,60 €-1.964,86 €	-304,26 €
79. Antzerki ikastaroa gazte eta helduentzat	210,00 €	157,50 €	Gastua: 150,00 € 2. zatia 150,00 €-157,50 €	-7,50 €
80. "Fakiu" Atx teatroa	2.325,00 €	1.743,75 €	Gastua: 2.842,00 € Sarrera: 150,00 € Guztira gastua: 2.692,00 € Zuriketaren soberakina: 367,00 €	581,25 €
<b>Guztira</b>				<b>966,99 €</b>

#### Santuenea Kultur Elkarte (KE.01/2017-0103)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu
----------	-----------	--------------	------------------	-------------------



Usurbilgo Udala


		(bideratua dagoena)		beharrekoa
81. Pintura eta plastika	1.488,00 €	1.116,00 €	Gastua: 2.775,65 € Sarrerak: 305,00 € Guztira gastua: 2.470,65 € Zuriketaren soberakina: 982,65 €	372,00 €
82. Argazki Lehiaketa	232,50 €	174,38 €	Gastua: 225 € 87. ekintzako soberakina 7,50 € Guztira gastua: 232,50 €	58,13 €
83. Pailazoak	837,00 €	627,75 €	Gastua: 1.136,46 € Zuriketaren soberakina: 299,46 €	209,25 €
84. Gabonak	1.176,45 €	882,34 €	Gastua: 1.230,06 € Sarrerak: 129,22 € Guztira Gastua: 1.100,84 € 87. eta 92. ekintzako soberakina 75,61 € Guztira gastua: 1.176,45 €	294,11 €
<b>Guztira</b>				<b>933,49 €</b>

#### Nafartarrak Kultur Taldea (KE. 01/2017-0104)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu edo itzuli beharrekoa
85. Antzerkia eta Musika	837,00 €	627,75 €	Gastua: 496,28 € 87. ekintzako soberakina 340,72 € Guztira gastua: 837,00 €	209,25 €
86. Hitzaldia: Mahai ingurua	1.116,00 €	837,00 €	Gastua: 800,00 € 87. ekintzako soberakina 316,00 € Guztira gastua: 1.116,00 €	279,00 €
87. Xiberuko ikastolen aldeko kanpaina	883,50 €	662,63 €	Gastua: 1.582,50 € Zuriketaren soberakina: 699,00 €	220,88 €
88. Irteera: Enneco proiektua ezagutzen	55,00 €	41,25 €	EKINTZA EZ DA EGIN	-41,25 €
89. Irteera: Aitzorrotzea	55,00 €	41,25 €	EKINTZA EZ DA EGIN	-41,25 €
<b>Guztira</b>				<b>626,63 €</b>

#### Sagastiak Loretan (KE. 01/2017-0105)

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	Justifikatutakoa	2. zatia Bideratu beharrekoa
----------	-----------	----------------------------------	------------------	------------------------------



Usurbilgo Udala

90. Sagastiak loretan ekimena	2.976,00 €	2.232,00 €	Gastua: 4.152,45 € Sarrerak: 700,00 € Guztira gastua: 3.452,45 € Zuriketaren soberakina: 476,45 €	744,00 €
<b>Guztira</b>				<b>744,00 €</b>

### 3. Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2017an kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2017/02/13).
- 2017ko diru-laguntzen behin behineko ebazpena (GAO, 2017/05/30)
- 2017ko diru-laguntzen behin betiko ebazpena (GAO, 2017/07/17)
- Kontu hartzailearen ziurtagiria
- Kultura Teknikariaren txostena

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du:

### ERABAKIA

**Lehenengoa:** Honako eskatzaileei kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintzak	Ordainketa
Lauburu konpartsa	1,2,3,4	453,38 €
Ziortza gazte elkarte	5,6,7,8	2.504,16 €
Irri abesbatza	9	88,55 €
Noaua!	15,16	1.204,75 €
Zubietako eskolako guraso elkarte	20,21,22,23	976,65 €
Organoaren lagunak	24,25,26	567,30 €
Einean guraso eskola	27,28,29	378,00 €
Antxomolantxa	30,31,32,35,37,38,39,40	1.303,98 €
Herritzartu elkarte	41,42,43	523,13 €
Bihurri Txiki ludoteka	44,45,46,47,48	284,81 €
San Praixku guraso elkarte	49,51,52,53,55,56,57,58	1.575,00 €
Usurbilgo Euskal Kantu taldea	61,61,62	573,75 €
Orbeldi Dantza Taldea	63,64,65,66	604,50 €
Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarte	67,68,69,70,71,72,73	391,30 €
EHAZE	75,76,77,78,79,80	966,99 €
Santuenea kultur elkarte	81,82,83,84	933,49 €
Nafartarrak kultur taldea	85,86,87,88,89	626,63 €
Sagastiak loretan	90	744,00 €

**Bigarrena:** Kultura Alorreko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03.2017 (A 13/2017)

**Hirugarrena:** Interesatuei akordioaren berri emango zaie.



Usurbilgo Udala

**Laugarrena:** Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio.

## 5.- 2018AN KIROL EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

### Ikusirik

Usurbilgo Udalak, kirol elkarteek, bestelako kirol erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kirol ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2018 urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2018 urtean kirol egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

### Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki du:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** 2018an Kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.


**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen diren diru izendapenak:

143	00	481	341	00	01	Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenak	45.000 € (A 20-2018)
143	00	481	341	00	02	Emakume eta gizonen berdintasun kirol jarduerak	5.000 € (A 21-2018)
143	00	481	341	00	06	Kirol egokitua	3.000 € (A 22-2018)
143	00	481	341	00	07	Kirol elkarte ez direnen kirol jarduerak	1.000 € (A 23-2018)

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogeit egun balioduneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

## **6.- 2018AN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**

### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, elkarteek, bestelako erakundeek eta norbanakoek gizarte zerbitzuen arloan egiten dituzten ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2018. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2018. urtean gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da, beti ere berdintasun, ingurumen eta euskara arloko legeria kontuan izanik Eta, bestalde, hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki..

Hori horrela, 2018ko urtarrilaren 17an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzordean 2018. urtean gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

### **Eta kontutan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2017/07/18)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki du:

## **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** 2018. urtean Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidari azaltzen den diru izendapena: 1.8000.481.231.03.02.2017 Diru-laguntza irekiak: elkartearen asmoak (A 18-2018).

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogeitun egun balioduneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

## **7.- IGOGAILUAK INSTALATZEKO DIRU-LAGUNTZEN 2018KO OINARRIAK ONARTZEA.**

### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, herrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailuaren instalazioa bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu, 2017. urtean zehar amaitutako instalazio jarduerak diruz laguntzeko. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. Kapituluaren I. Atalak ezartzen duena jarraiki.

Hori horrela, 2018ko urtarrilaren 17an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzordean Igogailuak instalatzeko diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

### **Eta kontutan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2017/07/18)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki du:

## **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** Herrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailua instalatzeko diru-laguntzen oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi erantzen zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidaren azaltzen den diru izendapena: 1.8000.780.231.03.01 Diru-laguntza irekiak: igogailuak instalatu (A 19-2018).

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogeit egun baliouduneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

## **8.- DESERROTZE ETA BAZTERTZE SOZIALEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN SENIDEEI ERANTZUTEKO 2018KO DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK ONARTZEA.**

### **Ikusirik**





Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalak, erabaki judizial bat betetzearen ondorioz (barneratzea zentro psikiatriko batean, kartzelan, drogamenpekotasun zentro batean) herritik kanpo egon eta beraien ingurune familiarra etorri ezin diren pertsonen senideek egiten dituzten joan-etorrien gastuak diruz lagundu nahi ditu.

Horregatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak aurrekontu partida bat ezarri du aipaturiko egoeran dauden pertsonen senideei joan-etorri gastuak ordaintzeko diru-laguntzak emateko.

Hori horrela, 2018ko urtarrilaren 17an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzordean oinarri hauen berri eman zen.

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen
- Diru laguntzak arautzen dituen ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2017/07/18)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki du:

## **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideek egiten dituzten joan-etorri bidaien gastuak diruz laguntzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbatekoa aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.8000.480.231.03.03 (A 17-2018)

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogeitun egun balioduneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

## **9.- 2018AN KULTUR EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**

### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kultur ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko duten oinarriak atera nahi ditu 2018. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen oinarri erregulatuak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2018. urtean kultura arloan egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsonari. Eta hau guztia



Usurbilgo Udala

kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atala.

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa (2017/07/18)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du:

## **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** 2018an Kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi erantzen zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena: 1.4000.481.334.00.03 (A 2/2018)

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogei egun balioduneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

## **10.- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA EKIMENAK BULTZATU ETA SUSTATZEKO 2018KO OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.06/2017-0046

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten nekazaritza-abeltzaintza arloko ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, 2018. urteko diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu.

Oinarri hauen helburua nekazaritza-abeltzaintza arloko egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01) eta Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2017/07/18) kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du:

## **E R A B A K I A**



Usurbilgo Udala

**LEHENDABIZI:** Proposamen honi erantsirik doazen nekazaritza-abeltzaintza arloko egitasmoak laguntzeko 2018ko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**BIGARRENA:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidari azaltzen den diru izendapena: 1-6200-481-412-00-03-2018 (A 26/2018).

**HIRUGARRENA:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**LAUGARRENA:** Hogeitun laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**BOSTGARRENA:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari ematea.

## **11.- INGURUMEN EKIMENAK BULTZATU ETA SUSTATZEKO 2018KO OINARRIAK ONARTzea.**

Esp. Zenbakia: HZ.06/2018-0045

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten ingurumen arloko egitasmoak bultzatu eta sustatzeko asmoz, 2018. urteko diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu.

Oinarri hauen helburua ingurumen arloko egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01) eta Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2017/07/18) kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du:

### **E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI:** Proposamen honi erantsirik doazen ingurumen arloko egitasmoak laguntzeko 2018ko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**BIGARRENA:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidari azaltzen den diru izendapena: 1-6100-480-172-00-01-2018 (A 25/2018).

**HIRUGARRENA:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**LAUGARRENA:** Hogeitun laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.



Usurbilgo Udala

**BOSTGARRENA:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari ematea.

**Batzarkideek, aho batez, hurrengo bi puntuak gai-zerrendan sartzea berretsi dute.**

## **12.- USURBILGO KIROL INSTALAZIOEN GARBIKETA KONTRATUA LUZATZEA.**

Esp.zk.: ID.05/2013-0443

2013ko urriaren 31ko 2013/1071 zenbakidun Alkatetzako dekretu bitartez *Usurbilgo kirol instalazioen garbiketa kontratuaren* espedientea onartu zen, baldintza pleguak onartuz. 2014ko urtarrilaren 9ko 2014/0013 zenbakidun Alkatetzako dekretu bidez erabaki zen ekonomikoki proposamenik onuragarriena Galant Garbitasuna SLU enpresak aurkeztutakoa zela eta esleipena honen alde egin zen urtarrilaren 17ko 2014/0055 Dekretuaren bidez. Kontratua 2014ko urtarrilaren 28an sinatu zen, luzapenak barne gehienez 4 urteko iraupenaz. Ondoren, 2014ko irailaren 1ean, kontratua honako eremuetara zabaltzea formalizatu zen: Usurbilgo kaskoko frontoiko aldagelak eta Aginako frontoiko aldagelak.

Lizitazio berria arrazoi ezberdinak tarteko asko atzeratu da eta bitartean indarrean dagoen kontratuaren amaiera iritsi da. Kirol Saileko Teknikariak txostena egin du, zerbitzu hau esleipen berria egin arte mantentzeko beharraz.

Pertsonal eta Kontratazio teknikariak ere kontratua luzatzearen aldeko txostena egin du.

Aurreko guztia kontuan harturik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du:

### **E R A B A K I A**

**LEHENENGO:** Usurbilgo Udalaren *Usurbilgo Kirol Instalazioan garbiketa zerbitzu* kontratua luzatzea, GALANT GARBITASUNA SLU enpresarekin sinaturikoa, 2018ko urtarrilaren 27tik esleipen berria egin arte eta orain arteko baldintza berdinetan.

**BIGARRENA:** Kontratuari dagokion gastua baimentzea eta xedatzea, 2018ko aurrekontuko 1.4300.227.340.00.01 partidaren kontura (A 29/2018).

**HIRUGARRENA:** Interesatuari eta kontuhartzaitzari erabaki hau jakinaraztea.

## **13.- USURBILGO UDALAREN KIROL INSTALAKUNTZEN GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA.**

Esp. zk.: ID.05/2017-0544

### **IKUSIRIK**

**Kontratuaren gaia helburua:** Kirol Instalazioen garbiketa.



Usurbilgo Udala

**Zerbitzua kontratatzearen beharra edo egokitasuna:** Kirol Instalazioen garbiketa, beste udal instalazio guztiena bezala aurrera eraman beharreko zerbitzu bat da. Udalak ez du pertsonal propioarik bere eraikin eta instalazio guztiak pertsonal propioarekin garbitzeko, hori horrela, eta orain arte egin den bezala, kirol instalazio batzuek garbiketa zerbitzu kontratu bidez kontratatzeko du.

**Kontratu mota:** Zerbitzu kontratua. Erregulazio harmonizatutzat jo beharreko kontratua da, 2014/24/UE direktibaren eragin zuzenaren ondorioz. Kontratu erreserbatua da, 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen bosgarren xedapen gehigarriaren zehaztutakoaren baitan, enplegu-zentro berezietan erreserbatuta geratuz.

*Prozedurari dagokionez*

**Espediente-mota:** Ohiko tramitazioa du.

**Esleipena egiteko bidea eta modua:** Sektore Publikoen Kontratu Legearen Testu Bateginaren arabera, prozedura ireki bidez.

**Baldintza Orriak:** Espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak doaz. Agiri horietan jasotakoa jardunbidearen kudeaketa-beharrei eta baldintzei egokitzen zaie eta, batez ere, 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 115 eta 116 artikuluei.

#### **Txostenak**

- Kontratazio Teknikariaren lege txostena.
- Kontuhartzailearen ziurtagiria.

#### **Kontratua esleitzeko eskuduntza**

3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 2. xedapen gehigarriaren 1. puntuan xedatutakoa eta 2005eko abenduaren 12ko Alkatetzako Dekretua ikusita, kontratua esleitzeko eskuduna Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarra da, kontratazio honek udal aurrekontuaren errekurtso arruntetik %5etik gorakoa eta %10etik beherakoa denez.

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du:

### **E R A B A K I A**

**LEHENA:** Prozedura irekiaren bitartez kirol Instalazioen garbiketa zerbitzu kontratu erreserbatu hau esleitzeko kontratazio espedienteari onespena ematea.

**BIGARRENA:** Aipatu zerbitzu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak eta Preskripzio Teknikoen Orriak onespena ematea.

**HIRUGARRENA:** 2018 urteko aurrekontuan %21eko BEZ barne 82.935'82 euroko gastu estimazioa onartzea, 1.4300.227.34.0001 kontu-sailaren kontura (A/28-2018).



Usurbilgo Udala

**LAUGARRENA:** SPKLTBk xedatutakoaren arabera, eta kontratua erregulazio harmonizatukotzat jo behar denez, lizitazio iragarkia GAORA, DOUEra eta EAORA bidaltzea eta kontratatzailearen profilean horren berri ematea.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:30ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**